

KATALOGOA ERABILTZEN IKASI

2016ko azaroa

A. Katalogorako (OPAC) sarbidea	3
1.- Erabiltzaileek iruzkindutako eta baloratutako liburuak	3
2.- Azken nobedadeak bistaratu	4
3.- eLiburutegia	6
B. Identifikatu	7
1.- Nola gehitu/aldatu posta elektronikoa edo pasahitza	8
2.- Nola lan egin Katalogo (OPAC) erabiltzaileari atxikitako ezizen batekin	8
3.- Ezagutu zure maileguen egoera eta maileguak berritu	10
4.- Proposatu eskuraketak liburutegiari	13
5.- Informazio pertsonalizaturako sarbidea	14
6.- Komentatu nahi duzuna zure liburutegiari (proposamenak, iritziak, kritikak, kexak...)	15
7.- Sortu zure esteka pertsonalizatuak	16
8.- Eskatu edo erreserbatu liburu bat Internetez	17
9.- Etiketatzeko soziala	22
C. Kontsultatu liburutegi sareko funtsak	27
A. NON BILATU	27
➤ Bilaketa zuzenak katalogoan	27
➤ Bilaketa aurreratuak katalogoan (Katalogo osoan kontsulta egin)	28
➤ Kontsultak sareko liburutegietako katalogoetan	29
➤ Kontsultak Nire Liburutegiko katalogoan (erabiltzaile gisa identifikatu ondoren)	30
➤ Kontsultatu Eskurapen berriak	30
➤ Kontsultatu Hemeroteka katalogoa	31
➤ Kontsultatu Euskal bibliografia katalogoa	31
➤ Gomendatutako bibliografietara sartu	31
B. NOLA BILATU	32
➤ Nola egin bilaketa eremu jakin batean	32
➤ Egin bilaketa eremu batean baino gehiagotan batera	32
➤ Bilaketa, trunkamendu bidez	33
➤ Bilaketa boolearrak	34
➤ Kontsultak autoritateen alorrean	37
➤ Kontsultak aurkibideen alorrean	39
3.- Sortu zure bibliografia	40

A. Katalogorako (OPAC) sarbidea

Helbide honen bitartez sar zaitezke Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (aurrerantzean EIPS) Katalogoan (OPAC ere deitua):

<http://www.katalogoak.euskadi.net/katalogobateratua/>

Orrialde horretatik behar duzun informazioa kontsultatu edo bilatu dezakezu.

Katalogoan OPAC) kontsulta bat egiteko sar itzazu nahi dituzun terminoak **Bilatu** eremuan. Bilaketa **Katalogo osoaren edozein eremutan** (egilea, izenburua, argitaletxea...)egiten da.



The screenshot shows the search interface of the Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea. At the top, there is a header with the text "Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea" and "Red de Lectura Pública de Euskadi". Below the header, there are navigation links: "Deskonektatu", "Castellano", "Français", "English", and "Laguntza". The main search area features a search bar with the label "Bilatu:" and a "Bilatu" button. Below the search bar, there is a dropdown menu with the text "Katalogo orokorra". At the bottom of the search area, there is a link labeled "Bilaketa aurreratua".

1.- Erabiltzaileek iruzkindutako eta baloratutako liburuak

Katalogoan (OPACen) iruzkin gehien dituzten liburuak ikusi ahal izateko, klikatu **Baloratuenak** aukera.

OPACen gehien baloratutako liburuak ikusi ahal izateko, klikatu **Iruzkinduenak** aukera. Adibidez:

Irakurleen iritziak:

Baloratuenak (448)






Iruzkinduenak (448)

Klikatzean, iruzkin gehien dituzten erregistroak agertzen dira:

Irakurleen iritziak:

Baloratuenak (448)

Iruzkinduenak (448)

-  Nos vemos allá arriba /
-  Harry Potter y el cáliz de fuego
-  La verdad sobre el caso Harry
-  Vestido de novia /
-  La chica del tren /

2.- Azken nobedadeak bistaratu

Aplikazioan alta emandako azken aleak Katalogoan (OPACen) bistaratuko dira, New etiketarekin. Etiketa hori bilaketa bat egiten dugunean agertzen da, **ALEAK** erlaitzean. Informazio horretaz gain, eskura dagoen ale-kopurua eta aleak zenbat aldiz mailegatu diren ere jakin daiteke.

DOKUMENTUA ALEAK (8) IRUZKINAK ETIKETAK									
Ale erabilgarriak: 8 / Mailegatu den aldiak: 0									
Liburutegia	Sukurtsala	Kokagunea	Ale-mota	Bar.Kod.	Signatura	Sign. Gehig.	Lib. Id.	Erabilg.	Euskarria
Gaubea	Udal Liburutegia	Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	8276149	N LOI ham	AZUL		Erabilgarria	Papera
Igorre	Udal Liburutegia	Gazteentzako atala (+12 urte)	Monografiak-Haur/gazte (M)	7057695	J LOI ham			Erabilgarria	Papera
Maruri-Jatabe	Liburutegia	Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	8148803	E LOI ham			Erabilgarria	Papera
NEW Abaltzisketa	Udal Liburutegia	Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	8799005	N LOI ham			Erabilgarria	Papera
Ezkio-Itsaso	Udal	Gazteentzako	Monografiak-	5888199	891.69 LOI			Erabilgarria	Papera


3.- eLiburutegia

eLiburutegia eduki digitalen irakurketa errazten duen plataforma da, Interneten eskuragarri dagoena streaming bidez, ordenagailuan deskargatuta edo gailu mugikorretan. Zerbitzu honen web-orria honakoa da:

www.eliburutegia.euskadi.eus

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko bazkide bazara nahikoa da liburutegiko beste edozein zerbitzutarako sartzen dituzun datuak sartzea (bazkide zenbakia eta pasahitza).

Lotura interesgarriak ataletik zerbitzu horretara sar zaitezke.



B. Identifikatu

Erabiltzaile gisa identifikatzeko honako pausoak jarraitu behar dituzu:

1. **Irakurle zk. / Posta elektronikoa** eremuan sartu zure irakurle zenbakia edo Sarean alta eman zenueneko posta elektronikoko helbidea.

Irakurle zk. / Posta elektronikoa	Pasahitza	Konektatu
<input type="text"/>	<input type="text"/>	

2. **Pasahitza** eremuan sartu sarbide-gakoa (pasahitza zure liburutegian emango dizute).

Ohar garrantzitsua: jardunik gabeko 5 minutu pasa ondoren OPACaren saioa amaituko da eta berriro konektatu beharko duzu datuak berriro sartu eta gero:



Katalogoan zure gakoekin sartuz gero honako zerbitzu hauek ere erabil daitezke:

- Nire liburutegia atala

1. Pasahitza aldatu.
2. Ezizena aldatu iruzkinak egiteko.
3. Posta elektronikoko helbidea aldatu.
4. Maileguen egoera ezagutu eta berritu.
5. Liburutegiari erosketa eta/edo eskuraketa berriak egiteko iradokizunak egin.
6. Interesekoak diren dokumentu guztien informazioa eskuragarri izatea (liburuak, filmak, arlo tematikoak...).
7. Gure liburutegiari nahi dioguna komentatu.
8. Pertsonalizatutako estekak edo loturak sortu.

- Atal orokorra

1. Liburu bat eskatu edo erreserbatu Internet bidez.
2. Etiketatzeko soziala.

1.- Nola gehitu/aldatu posta elektronikoa edo pasahitza

Zure posta elektronikoa gehitu/aldatu nahi baduzu:

1. Sartu identifikatutako erabiltzaile batekin.
2. Klikatu **Nire liburutegia**.
3. **Posta elektronikoa aldatu** eremuan, sartu zure helbide elektronikoa.

Posta elektronikoa aldatu	
Helbide berria	<input type="text"/> <input type="button" value="Onartu"/>
	Erabili <input checked="" type="checkbox"/>

4. Klikatu **Onartu**.

- Helbide elektronikoa gaitu nahi baduzu, hautatuta utzi **Erabili** laukitxoa.

Zure pasahitza aldatu nahi baduzu:

1. Sartu identifikatutako erabiltzaile batekin.
2. Klikatu **Nire liburutegia**.
3. **Pasahitza aldatu** eremuan, sartu zure egungo pasahitza, zure pasahitz berria eta baieztatu pasahitz berria.
4. Klikatu **Onartu**.

Pasahitza aldatu	
Pasahitza	<input type="text"/>
Pasahitz berria	<input type="text"/>
Pasahitz berriaren baieztapena	<input type="text"/>
	<input type="button" value="Onartu"/>

2.- Nola lan egin Katalogo (OPAC) erabiltzaileari atxikitako ezizen batekin

Nola gehitu ezizen bat

Katalogoa erabiltzen ikasi

Aldaketa-data: 2016ko azaroa

Or.: 8/41

Ezizen bat zure Katalogo (OPAC) erabiltzaileari atxikitzea nahi baduzu:

1. Sartu identifikatutako erabiltzaile batekin.

Ezizena aldatu

Ezizen berria

2. Klikatu **Nire liburutegia**.

3. **Ezizena aldatu** eremuan sar ezazu nahi duzun ezizena.

- Behin erabiltzaileak ezizen bat atxikia duenean:

DOKUMENTUA ALEAK (107) **IRUZKINAK (9)** ETIKETAK

Irakurleen iritziak

9 Bidalitako iritziak (Batezbestekoa 4.9/5) Zure iritzia utzi Iritzi guztiak ikusi

★★★★★ **Abentura hutsa, : Abril, 10/11/2016 12:53**
Gaztetxoentzako egokia

- Erabiltzailearen iruzkin eta balorazioetan hari atxikitako ezizena agertzen da.

- Iruzkin baten ezizena klikatzean, erabiltzaile berak egindako iruzkinak dituzten erregistro guztiak bistaritzen dira.

Bilatzen Tituluak komentatutako erabiltzaileak: Abril Katalogo orokorra

Erregistroak 1/5 5

Boyne, John (1971-) 1 Itzuli
El niño con el pijama de rayas / John Boyne; traducido del inglés por Gemma Rovira Ortega (2007)
Argitalpena: 1ª ed
Argitaratzailea: Barcelona : Salamandra, 2007
Deskripzio fisikoa: 219 p. ; 22 cm
ISBN: 978-84-9838-079-8
Egileak: Rovira, Gemma

Gabás, Luz (1968-) 1 Itzuli
Palmeras en la nieve / Luz Gabás (2014)
Argitalpena: 1ª ed; en Colección Bookket
Argitaratzailea: Madrid : Temas de Hoy, 2014
Deskripzio fisikoa: 734 p. ; 20 cm
ISBN: 978-84-9998-378-3

Hawkins, Paula 1 Itzuli
La chica del tren / Paula Hawkins ; traducción de Aleix Montoto (2015)
Argitalpena: 1ª ed
Argitaratzailea: Barcelona : Planeta, 2015
Deskripzio fisikoa: 493 p. ; 22 cm
ISBN: 978-84-08-14147-1
Egileak: Montoto, Aleix

Pinilla, Ramiro (1923-2014) 1 Itzuli





- **Nire liburutegia** aukeraren ezizena klikatzean, erabiltzaile berak egindako iruzkinak dituzten erregistro guztiak bistaratzen dira.

Irakurle-zk. 120044777	
Ezizena	Abril
Helbidea	Calle Donostia 1 VITORIA-GASTEIZ ARABA/ÁLAVA
Posta elektronikoa	lector@lector.eus
Telefonoa	945019470
Mezua	
Gabetze-data	

Irakurlearen informazioa:

- Ordaindu gabeko zorrak: 3.00
- 1 IHS
- 2 desiderata(k)

Nola aldatu ezizen bat

Zure erabiltzaileari atxikitako ezizena aldatu nahi baduzu:

1. Sartu Katalogoan identifikatutako erabiltzaile batekin.
2. Klikatu **Nire liburutegia**.
3. **Ezizena aldatu** eremuan, sartu zure erabiltzaileari atxiki nahi diozun ezizen berria.

Ezizena aldatu
Ezizen berria <input type="text"/> <input type="button" value="Onartu"/>

4. Klikatu **Onartu**.

3.- Ezagutu zure maileguen egoera eta maileguak berritu

1. Identifikatu erabiltzaile gisa Katalogoan (OPACen).
2. Behin erabiltzaile gisa konektatu ondoren, irakurlearen aukeretara sartzen zara **Nire liburutegia** estekaren bidez, OPACen hasierako orrialdean. Aukera pertsonalen pantaila bat agertuko da, eta horien artean aurkituko duzu:

Mailegu-eskaerak

Leiho honetatik, egin dituzun eskaerak ikus ditzakezu, horien egoera egiaztatu eta, nahi izanez gero, ezabatu.

Mailegu-eskaera bat ezabatzeko, klikatu **Ezabatu**.

Katalogoa erabiltzen ikasi

Aldaketa-data: 2016ko azaroa
Or.: 10/41

Maileguak				
Liburutegia	Sukurtsala	Izenburua	Itzultzeko data	Berritu
B0600 Bilbo-Udal Liburutegiak	605 Deustu	Nola sortzen da euria? /	29/11/2016	
B0600 Bilbo-Udal Liburutegiak	611 San Ignazio	Cenicienta /	29/11/2016	
B0600 Bilbo-Udal Liburutegiak	611 San Ignazio	Beldar biki jatuna /	29/11/2016	
B0600 Bilbo-Udal Liburutegiak	611 San Ignazio	La carta de Papá Noel /	29/11/2016	
B0600 Bilbo-Udal Liburutegiak	611 San Ignazio	Las más bellas nanas del mundo : 23 nanas desde Mali __ a Ja	29/11/2016	
B0600 Bilbo-Udal Liburutegiak	611 San Ignazio	Las más bellas nanas del mundo [29/11/2016	

Erreserbak

Leiho honetatik erreserbak ikus ditzakezu, itxarote-zerrendan zein tokitan zauden egiaztatu eta, nahi izanez gero, erreserbak ezabatu.

Erreserba bat ezabatzeko, klikatu **Ezabatu**.

Erreserbak					
Liburutegia	Sukurtsala	Izenburua	Egoera	Ordena	Ezabatu
Laudio	Udal Liburutegia	Historia de un canalla /	28/11/2016 23:59-etik erabilgarria	1	

Maileguak

Zenbat dokumentu mailega daitezke?

Sarean parte hartzen duten liburutegietatik 16 dokumentu batera hartzeko aukera eskaintzen dizugu:

- ☐ Zure udal-liburutegitik 6 dokumentu eraman ahal izango dituzu etxera: 3 monografia sailekoak eta 3 berezien sailekoak.
- ☐ Sareko gainerako liburutegietatik 10 dokumentu gehiago hartu ahal izango dituzu: 5 monografia sailekoak eta 5 berezien sailekoak.

Zenbat denborarako?

Dokumentuak 21 egunetarako uzten dira maileguan. Behar izanez gero, beste 21 egunetarako berritu ahal duzu mailegua, baldin eta beste pertsona batek aurretik dokumentu hori erreserbatu ez badu. Horrela bada, **ezingo duzu mailegua berritu**.

Material bereziak (bideoak, diskoak, ordenagailu-artxiboak eta abar) 7 egunez mailega daitezke, eta beste 7 egunez luzatu epea. Liburuekin bezala, norbaitek dokumentuaren erreserba egin badu **ezingo duzu mailegua berritu.**

Mailegu bat berritzeko, nahikoa duzu **Berritu** klikatzea.

(Oharra: Liburutegi batzuk ez dute uzten material berezia berritzen)

Mailegu bat berritzeko kontrol-laukia markatu eta **Berritu** klikatu.

Maileguak				
Liburutegia	Sukurtsala	Izenburua	Itzultzeko data	Berritu
A0039 Gasteiz	053 Salburua Familia Lib.	El tour de los Muppets [15/11/2016	<input type="checkbox"/>
A0039 Gasteiz	053 Salburua Familia Lib.	Gnomeo y Julieta [15/11/2016	<input type="checkbox"/>
A0039 Gasteiz	053 Salburua Familia Lib.	La increíble ¡pero cierta! historia de Caperucita Roja [15/11/2016	<input type="checkbox"/>

Maileguak				
Liburutegia	Sukurtsala	Izenburua	Itzultzeko data	Berritu
A0039 Gasteiz	053 Salburua Familia Lib.	El tour de los Muppets [15/11/2016	<input checked="" type="checkbox"/>

Oharra: Maileguen berritzea zuzena izango da itzultzeko-data aldatzen denean.

Maileguak				
Liburutegia	Sukurtsala	Izenburua	Itzultzeko data	Berritu
A0039 Gasteiz	053 Salburua Familia Lib.	El tour de los Muppets [22/11/2016	

GOGORATU: Maileguak berritu ahal izango dira soilik indarrean dagoen maileguaren azken bost egunetan, eta betiere epea luzatu nahi den dokumentua edo dokumentuak beste pertsona batek erreserbatu ez baditu. Mailegua soilik behin berritu ahal izango da.

4.- Proposatu eskuraketak liburutegiari

1. Identifikatu erabiltzaile gisa Katalogoan (OPAC).
2. Behin erabiltzailea konektatuta dagoela, irakurlearen aukeretara sartzen da **Nire liburutegia** estekaren bidez, OPACen orrialde nagusian, hasierakoan. Aukera pertsonalen pantaila bat agertuko da, eta horien artean aurkituko duzu "**Desideratak**" izenekoak.

Desiderata bat erosteta eta/edo eskuratze bat egiteko proposamena da. Liburutegiari proposatu ahal izango diozu zuretzat garrantzizkoa den edozein dokumentu eros dezala. Leiho honetatik, zure desideraten egoera kontsultatu eta, nahi izanez gero, berriak gehitu ahal izango dituzu.

3. Desiderata bat gehitzeko, klikatu **Gehitu** eta bete inprimakia liburutegiari erosteko proposatzen dizkiozun dokumentuei buruzko datuekin.

Desideratak gehitu

Lector Apellido

Izenburua	<input type="text" value="Todo esto te daré"/>
Egilea	<input type="text" value="Dolores Redondo"/>
Argitaratzailea	<input type="text" value="Planeta"/>
Argitalpena	<input type="text"/>
Argitalpen data	<input type="text"/>
ISBN/ISSN	<input type="text"/>
Beste informazio bat	<input style="height: 40px;" type="text"/>

Lector Apellido

Desideratak			Gehitu
Egilea	Izenburua	Egoera	
	La pasión turca	Berria	
Dolores Redondo	Todo esto te daré	Berria	

GOGORATU: *Desiderata* bat egin aurretik dokumentua liburutegiaren katalogoan ez dagoela egiaztatu.

5.- Informazio pertsonalizaturako sarbidea

Behin katalogoan (OPAC) erabiltzaile gisa identifikatu ondoren interesekoa den informazio guztira (liburuak, arlo tematikoak...) sartzeko aukera dago.


Nire liburutegia estekaren bidez, OPACen orrialde nagusian edo hasierakoan, aukera pertsonalen pantaila bat agertuko da, eta, horien artean, **Bildutako kontsultak (IHS)**.

IHS (Informazioaren hedapen selektiboa) irakurleentzako kontsulta pertsonalizatuko sistema bat da. Interesdun bakoitzak galdetegi bat bete ahal izango du, haren interesekoak diren dokumentuei (liburuak, gaikako arloak...) buruzko informazioa jasotzeko diseinatua. Leiho horretatik IHSetara sar daiteke, edo, nahi izanez gero, IHS bat gehitu:

IHS bat gehitzeko:


Deskribapena eta **Bilaketa** eremuak bete behar dira.

Deskribapena eremuan, idatzi Katalogoan (OPACen) zure IHS identifikatzeko agertzea nahi duzun testua. **Bilaketa** eremuan, idatzi interesatzen zaizun bilaketa eta klikatu **Gehitu**.




IHS jakin batean sartzeko:

Klikatu interesatzen zaizuna eta leiho bat zabalduko da, hautatutako bilaketak dituen dokumentuekin.



6.- Komentatu nahi duzuna zure liburutegiari (proposamenak, iritziak, kritikak, kezak...)

1. Identifikatu erabiltzaile gisa Katalogoan (OPAC).
2. Pantailaren goialdean, eskuinera, klikatu **Irakokizunak eta iruzkinak**.



3. Idatzi komentatu nahi duzuna (proposamenak, iritziak, kritikak, kezak...) eta klikatu **Onartu**.

Irakokizunak egin / iruzkina / kontsulta.

Lector Apellido

Iruzkina

Lector Apellido

4. **Nire liburutegia** atalean, zure iruzkinen egoera ikusi ahal izango duzu.

Iradozikunak eta iruzkinak			
Alta-data	Egoera	Iruzkina	Irakurlearentzako oharra
10/11/2016 16:26	Egin gabeko	Larunbat arratsaldeetan liburutegia irekitzen al duzue?	

Eta zure liburutegiaren erantzuna:

Iradozikunak eta iruzkinak			
Alta-data	Egoera	Iruzkina	Irakurlearentzako oharra
10/11/2016 16:26	Berrikusia	Larunbat arratsaldeetan liburutegia irekitzen al duzue?	Bai. 16:00etatik 20:00etara

7.- Sortu zure esteka pertsonalizatuak

Nire estekak ataletik, zure esteka pertsonaletara sartu eta berriak gehitu ahal izango dituzu.

Nire estekak

Catálogo BNE Ezabatu

Deskribapena

URL Gehitu

Lotura bat **gehitzeko**:

1. **Deskribapena** eremuan, Katalogoan (OPAC) agertzea nahi den deskribapena idazten da.
2. **URL** eremuan, estekak zein helbidera daraman adierazten da.
3. Klikatu **Gehitu**.

Esteka jakin batera **joateko**:

1. Klikatu interesatzen zaizuna **Nire liburutegia** ataletik edo pantaila nagusiaren behealdean, eskuinera, dagoen **Nire estekak** ataletik.




- **Atal orokorra**

8.- Eskatu edo erreserbatu liburu bat Internetez

- a. 1. urratsa. Bilatu interesatzen zaizun dokumentua
- b. 2. urratsa. Eskaera bat egin (mailegatuta ez badago)
- c. 3. urratsa. Erreserbatu (beste erabiltzaile batek mailegatua badu)
- d. 4. urratsa. Zure eskaerak eta/edo erreserbak bistaratu

1. urratsa. Bilatu interesatzen zaizun dokumentua

1. Identifikatu erabiltzaile gisa Katalogoan.
2. Egin erreserbatu nahi duzun liburuaren bilaketa.
3. Pantaila batean dokumentu bat agertuko da formatu osoan, adibidean bezala. Aleari buruzko informazioaz gain, dokumentu hori mailegatuta dagoen ala ez agertzen da:



2. urratsa. Eskaera bat egin

Eskaera “erreserba” bat da, liburutegian une horretan ERABILGARRI dagoen ale bat hartzeko.

GOGORATU: Sareko liburu guztiak eska daitezke. gogoan hartu, alabaina, zure liburutegian ez dagoen ale bat eskatzen baduzu, hura dagoen liburutegira joan beharko duzula jasotzera. Liburutegi horretara joan aurretik komeni da egiaztatzea ale hori erabilgarri dagoela.

DOKUMENTUA ALEAK (115) IRUZKINAK ETIKETAK									
Ale erabilgarriak: 115 / Mailegatu den aldiak: 715									
<input type="button" value="Mailegua eskatu"/> <input type="button" value="Erreserbatu"/>									
Liburutegia	Sukurtsala	Kokagunea	Ale-mota	Bar.Kod.	Signatura	Sign. Gehig.	Lib. Id.	Erabilg.	Eusk.
Alegria-Dulantzi	Udal Liburutegia	Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	8518648	N AGI ate			15/11/2016-etik erabilgarria	Pape
Amurrio	Udal Liburutegia	Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	8577161	N AGI ate		2. ed.	Erabilgarria	Pape
Artziniega	Udal Liburutegia	Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	8508554	N AGI ate			Erabilgarria	Pape

Ikusten ari zaren dokumentuari lotutako aleetako bat eskatu nahi baduzu, klikatu **ALEAK** erlaitza. Gero, klikatu **Mailegua eskatu**.

Mailegua eskatu ondoren, pantaila hau agertuko da:

Mailegua eskatu

Alea hartzeko beste sukutsala bat aukeratu:

Gasteiz Judimendi

Liburutegia	Sukurtsala	Kokagunea	Ale-mota	Signatura	Liburukiaren identifikatzailea	Eskatu
		Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	N AGI ate		<input checked="" type="radio"/> Vitoria. Judimendi <input type="button" value="v"/>

Mailegu-eskaera bat gehitzeko, aukeratu nahi duzun alea eskuineko zirkuluan klik eginez, eta jarraian klikatu **Onartu**.

Mailegua eskatu

Liburutegia	Sukurtsala	Izenburua	Signatura	Erakusmahaia
Gasteiz	Judimendi	Katearen begiak /	N PET kat	Vitoria. Judimendi

Eskatutako mailegua

Gogoratu une horretan zigortuta bazaude ezingo duzula mailegu-eskaerarik egin.

3. urratsa. Erreserbatu

MAILEGUAN DAGOEN LIBURU BATEN ERRESERBAK SOILIK EGIN DAITEZKE. Liburua eskuragarri badago, nahikoa da liburutegira joan eta bertatik hartzea.

Ikusten ari zaren dokumentuari lotutako aleetako bat eskatu nahi baduzu, klikatu **Erreserbatu**.

DOKUMENTUA
ALEAK
IRUZKINAK
ETIKETAK

Ale erabilgarriak: 0 / Mailegatu den aldiak: 715

Mailegua eskatu
Erreserbatu

Liburutegia	Sukurtsala	Kokagunea	Ale-mota	Bar.Kod.	Signatura	Sign. Gehig.	Lib. Id.	Erabilg.	Euskarria	Testua
Gasteiz	Judimendi	Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	8499121	N AGI ate			28/11/2016-etik erabilgarria	Papera	

Mailegua eskatu
Erreserbatu

Erreserba bat egiteko, aukeratu nahi duzun alea eskuineko laukitxoan klik eginez, eta jarraian klikatu **Onartu**.

Erreserbatu

Onartu
Ezeztatu

Liburutegia	Sukurtsala	Kokagunea	Ale-mota	Signatura	Liburukiaren identifikatzailea	Itzultzeko data	Erabilgarritasuna	Eskatu
Gasteiz	Judimendi	Helduentzako atala (orokorra)	Monografiak-Helduak (M)	N AGI ate		28/11/2016 23:59	28/11/2016-etik erabilgarria	<input checked="" type="checkbox"/>

Onartu
Ezeztatu

GOGORATU: Behin zure erreserba aktibatu ondoren, bi eguneko epea izango duzu dokumentua liburutegitik jasotzeko. epea igaro eta jasotzen ez baduzu, erreserba hurrengo irakurlearentzat izango da. Zigortuta baude ezingo duzu erreserbarrik egin. Soilik 2 erreserba aktibo izan ditzakezu aldi berean.

4. urratsa. Zure eskaerak eta/edo erreserbak bistaratu

Nahi izanez gero, edozein unetan ikus ditzakezu zuk egindako eskaerak edo erreserbak. Horretarako:

1. Identifikatu erabiltzaile gisa Katalogoan (OPACen).
2. Behin erabiltzaile gisa konektatu ondoren, irakurlearen aukeretara sartzen zara **Nire liburutegia** estekaren bidez, OPACen orrialde nagusian, hasierakoan. Aukera pertsonalen pantaila bat agertuko da, eta horien artean aurkituko duzu:

Mailegu-eskaerak

Leiho honetatik, egin dituzun eskaerak ikus ditzakezu, horien egoera egiaztatu eta, nahi izanez gero, ezabatu.

Mailegu-eskaera bat ezabatzeko, klikatu **Ezabatu**

Biltegira eskatu					
Liburutegia	Sukurtsala	Izenburua	Erakusmahaia	Egoera	
Gasteiz	Judimendi	Begiak itxi eta kitto /	Vitoria. Judimendi	Eskaera	Ezabatu

Erreserbak

Leiho honetatik erreserbak ikus ditzakezu, itxarote-zerrendan zein tokitan zauden egiaztatu eta, nahi izanez gero, erreserbak ezabatu.

Erreserba bat ezabatzeko, klikatu **Ezabatu**.

Erreserbak					
Liburutegia	Sukurtsala	Izenburua	Egoera	Ordena	
Gasteiz	El Pilar	Piztiaren begiak /	Eskaera-maileguan dago	1	Ezabatu

9.- Etiketatzeko soziala

Katalogoan (OPAC) identifikatutako erabiltzaileek etiketak (etiketa-hodeiak) jar diezazkiekete erregistro bibliografikoei, beste erabiltzaile batzuek kontsultatu ahal ditzaten.

Etiketa-hodeiak:

Etiketa: **Bilatu**

carbón comedia egipto fosas comunes fotografía francia **getxo**
 horfandad inmigración **intriga** maitasuna menores robados
 mujeres musulmanas mujeres protagonistas playa premio loewe
premio nadal premio planeta punta galea **vitoria-gasteiz**

Etiketa sozial bat gehitzea:

Lehenik, irakurle gisa identifikatu Katalogoan (OPAC), ondoren bilaketa bat egin eta hautatu zer erregistrori jarri nahi zaion etiketa.

DOKUMENTUA
ALEAK (1)
IRUZKINAK (1)
ETIKETAK




Donna Tartt
El jilguero

Egilea: Tartt, Donna (1963-)
 Izenburua: El jilguero / Donna Tartt ; traducción de Aurora Echevarría
 Argitalpena: 1ª ed
 Argitaratzailea: Barcelona : Lumen, 2014
 Deskripzio fisikoa: 1143 p. ; 23 cm
 Bilduma: Narrativa
 Oharrak: Premio Pulitzer 2014
 Tit. orig.: The goldfinch
 Lege-gordailuaren B 838-2014
 zenbakia: 978-84-264-2243-9
 ISBN: Echevarría, Aurora
 Egileak:

Etiketeen formatoa ▼

Klikatu **Etiketak** erlaitza:




Klikatu **Gehitu etiketa** aukera. Beste leiho bat agertuko da:

Etiketa eremuan, sartu atxiki nahi dugun etiketa.

Klikatu **Onartu**.

Aurretik, bilaketa-termino bat sartu behar da; bestela, abisu-mezu bat agertuko da.


Etiketa gehitu aurretik hura jada existitzen den eta zer beste etiketarekin lotu daitekeen ikusteko, klikatu  **Egiaztatu**.

Etiketa berria bada, **Etiketa berria** mezua agertuko da.



Etiketa: amor 
Etiketa berria

Aurretik etiketa baldin badago, **Egiaztatu** botoian klik egitean, beste izenburu batek etiketa hori duela adieraziko du programak.



Etiketa: inmigración 
Dagoeneko bada etiketa

Etiketa jada existitzen bada eta lotutako terminoak baditu, **Egiaztatu** botoian klik egitean, lotutako terminoak **Erlazionatutakoak** laukian agertuko dira.



Etiketa: Premio 
Etiketa berria

Erlazionatutak: premio goncourt
premio goncourt
premio loewe
premio nadal
premio planeta

Botoa eman:

Erregistroari lotzeko lehendik existitzen den etiketa bat erabiltzen badugu, etiketa horren aldeko botoa emango dugu.

Erabiltzaileak erregistro batean etiketa adierazi badu, ezingo du dokumentu horretan berriz erabili; bai, ordea, beste batzuetan.

Etiketa sozial baten alde bozkatzea:

Etiketa sozial baten aldeko botoa emateko hiru modu daude:

Etiketa soziala esleituta duen erregistro bati lotuz.

Bozkatu eremuan etiketa hautatuz eta **Onartu** aukeran klik eginez.



Botoa eman: drama

Erlazionatutakoak eremuan hautatuz eta **Onartu** aukeran klik eginez.



Onartu aukeran klik eginez, **Erlazionatutakoak** eremuan hautatutako etiketa erregistroan gehituko da.

Etiketa sozialak ikusteko:

Ez da beharrezkoa Katalogoan (OPAC) identifikatzea erregistro bati esleitutako etiketak ikusteko. OPACean sar daitekeen edozer erabiltzailek ikus ditzake. Nahikoa da bilaketa bat egitea, dokumentua bistaratzea eta **Etiketak** erlaitzean sartzea.



Kurtsorea etiketaren gainean jartzean, zenbat boto dituen ikus daiteke.



Etiketa baten gainean klik eginez gero, lotuta duten erregistro guztiak ikusiko ditugu.

Etiketa sozialak bilatzeko:

OPACean hasierako pantailan etiketak ikus daitezke.

Etiketa-hodeiak:

Etiketa: **Bilatu**

carbón comedia egipto fosas comunes fotografia francia **getxo**
 horfandad inmigración **intriga** maitasuna menores robados
 mujeres musulmanas mujeres protagonistas playa premio loewe
premio nadal premio planeta punta galea **vitoria-gasteiz**

Etiketa jakin bat ikusteko, idatzi bilatu nahi duzun terminoa **Etiketa** laukian.

Etiketa-hodeiak:

Etiketa: **Bilatu**

Etiketak alfabetikoki ordenatuta daude, eta boto-kopurua agertuko da.

Etiketa-hodeiak	
Onartu	
Bilaketa: "premio"	
premio goncourt	1
premio loewe	3
premio nadal	9
premio planeta	2
Bilaketa: "premio"	
Onartu	

Etiketa batean klik egitean, zer erregistrori lotu zaien ikusiko dugu.

Bilatzen Etiketa: premio planeta Honetan Katalogo orokorra

Guztiak markatu Bilaketa markatu Berriro bilatu Erregistroak 1/2 2

Sánchez, Clara (1955-) 1 Itzuli
El cielo ha vuelto / Clara Sánchez (2013)
Argitalpena: 1ª ed
Argitaratzailea: Barcelona : Planeta, 2013
Deskripzio fisikoa: 378 p. ; 24 cm
ISBN: 978-84-08-11994-4

Zepeda Patterson, Jorge (1952-) 1 Itzuli
Milena o el fémur más bello del mundo / Jorge Zepeda Patterson (2014)
Argitalpena: 1ª ed
Argitaratzailea: Barcelona : Planeta, 2014
Deskripzio fisikoa: 476 p. ; 24 cm
ISBN: 978-84-08-13405-3

Guztiak markatu Bilaketa markatu Berriro bilatu Erregistroak 2/2 2

Etiketen bilaketak emaitzarik ematen ez badu, programak honako mezu hau erakutsiko du:

Etiketa-hodeiak

Onartu

Bilaketa: "montaña"

Ez dago etiketarik

Bilaketa: "montaña"

Onartu

C. Kontsultatu liburutegi sareko funtsak

A. NON BILATU

- Bilaketa zuzenak katalogoan

Aukera sinpleena da. Bilaketa bat zuzenean egin nahi baduzu, formulario batean sartu beharrik gabe, sartu interesatzen zaizkizun terminoak **Bilatu** eremuan. Bilaketa **Katalogo osoko edozein eremutan** egiten da (egilea, izenburua, argitaletxea...).

Bilatu:

▼

Kontuan izan behar da adibidean aipatutako hiru terminoak dituen edozein dokumentu berreskuratuko duela bilaketak, zuk ezarritako hurrenkera gorde gabe, eta erregistroaren edozein eremutan (egilea, izenburua, oharrak...). Beraz, gerta liteke berreskuratutako dokumentuen artean bakarren batek loturarik ez izatea zuk bilatu nahi duzun horrekin edo emaitza gehiegi eskaintzea.

➤ **Bilaketa aurreratuak katalogoan (Katalogo osoan kontsulta egin)**

Hasierako orrialdean klikatu **Bilaketa aurreratu** eta kontsultako formularioan sartuko zara.

Bilaketa aurreratu

Bilatzen: Katalogo orokorra ▼

Edozein eremua

Izenburua	<input type="text"/>	<input type="button" value="Aurkibidea"/>	
Egilea	<input type="text"/>	<input type="button" value="Aut.Aurk."/>	<input type="button" value="Zehatza"/>
Argitaratzailea	<input type="text"/>	<input type="button" value="Aurkibidea"/>	
Gaia	<input type="text"/>	<input type="button" value="Aut.Aurk."/>	<input type="button" value="Zehatza"/>
Bilduma	<input type="text"/>	<input type="button" value="Aurkibidea"/>	
Urtea>=	<input type="text"/>	<input type="text"/>	

Hizkuntza ---- ▼

Herria ----- ▼

Formatoa --- ▼

Zerrenda Ikusi 10 ▼

Ordena Autoritatea/Izenburua ▼


Aukeratu historikoa --- ▼

Fazeta


Bilatu nahi d(it)uzun hitz muga(k) sartu eta klik egin 'Bilatu' botoian
Bilaketa nola egin jakiteko, 'Laguntza' botoian egin klik

➤ **Kontsultak sareko liburutegietako katalogoetan**

EIPSn sartuta dagoen liburutegi bakoitzaren katalogoak kontsulta ditzakezu, bi eratarata. Alde batetik, hasierako orrialdetik liburutegietako bat aukera dezakezu:



Bestetik, liburutegi jakin batera sar zaitezke **Bilaketa aurreratua** orrialdetik:



Bi kasuetan, katalogo osoarentzat azaldutako modu berean egiten da kontsulta.

➤ **Kontsultak Nire Liburutegiko katalogoan (erabiltzaile gisa identifikatu ondoren)**

Klikatu **Kontsultatu nire liburutegiko katalogoa**. Gure liburutegiko funtsetan soilik egingo da bilaketa.

➤ **Kontsultatu Eskurapen berriak**

Liburutegiek edozein formatutan eskuratutako azken produktuak, azken hogeita hamar egunetan alta emandakoak, kontsultatzen dira. Nire Liburutegitik nahiz pantaila nagusiko sarrerako botoitik sar daitezke.



Katalogo osoarentzat azaldutako modu berean egiten da kontsulta.

➤ **Kontsultatu *Hemeroteka* katalogoa**

Hemeroteka klikatuta, aldizkako edo seriatutako argitalpen guztiak kontsulta daitezke. Katalogo osoarentzat azaldutako modu berean egiten da kontsulta.



➤ **Kontsultatu *Euskal bibliografia* katalogoa**

Euskal bibliografia klikatuta, euskal bibliografiari dagozkion aleak kontsultatzen dira. Katalogo osoarentzat azaldutako modu berean egiten da kontsulta.




?

➤ **Gomendatutako bibliografiara sartu**

Gomendatutako bibliografiak klikatuz gero EIPSetik gomendatutako bibliografiara sartzeko aukera izango da. Liburutegi bakoitzak bere bibliografiak sortu ahal ditu, soilik identifikatutako erabiltzaileek ikusiko dituztenak:

Pantaila berri bat agertuko da bibliografía ezberdinekin.

Gomendatutako bibliografiak 

Los puedes leer en papel o en digital / Paperean edo digitalean irakurri dezakezu

[Novelas ambientadas en Bilbao / Bilbon girotutako eleberrriak](#)

[Novelas ambientadas en Vitoria-Gasteiz / Gasteizen girotutako eleberrriak](#)

[Novelas con mujeres protagonistas / Emakumeak protagonista diren eleberrriak](#)

[Novelas de más de 500 páginas / 500 orrialde baino gehiagoko eleberrriak](#)

B. NOLA BILATU

Bilaketak egiterakoan gogoan hartzekoak:

- ❑ Bilaketan gehienez 250 karaktere erabil daitezke.
- ❑ Bilaketa edozein eremutan egin daiteke, baita eremu batean baino gehiagotan ere, aldi berean.
- ❑ Bilaketa-terminoak nolnahi idatz daitezke, hau da, letra larriz edo xehez, diakritikoak, azentuak eta dieresiak eta abar erabiliz, edo erabili gabe.
- ❑ Sartzen den termino oro (hitz bat, zenbaki bat, karaktere-segida bat eta abar) bilaketa-terminotzat hartuko da.
- ❑ Bilaketetan ez dira puntuazio-markak erabili behar.
- ❑ Ez dago hitzik, hitz huts gisa definitutakorik. Bilagarri gisa mantendu dira preposizioak, artikulua eta abar.
- ❑ "NO", "MISMO", "CERCA" eta "CON" eragile boolearrak dira, eta sistemak ez ditu hitz gisa identifikatzen. Beraz, ez erabili termino bilagarri gisa.

➤ **Nola egin bilaketa eremu jakin batean**

1. Egin klik bilaketa egin nahi duzun eremuan (egilea, argitaletxea, gaia...).
2. Idatzi aurkitu nahi dituzun terminoak.
3. Azkenik, klikatu **Bilatu**.

➤ **Egin bilaketa eremu batean baino gehiagotan batera**

4. Idatzi terminoak bilaketa egin nahi duzun eremuetako bakoitzean.
5. Klikatu **Bilatu**.

Bilaketa aurreratua

Bilatzen: Katalogo orokorra

Edozein eremua

Izenburua Aurkibidea

Egilea Joxe Mari Iturraide Aut.Aurk. Zehatza

Argitaratzailea Aurkibidea

Gaia Aut.Aurk. Zehatza

Bilduma Xaguxar Aurkibidea

Urtea>= 2003 2005

Hizkuntza ----

Herria -----

Formatoa ---

Zerrenda Ikusi 10

Ordena Autoritatea/Izenburua

Aukeratu historikoa ---

Fazeta

Bilatu Garbitu

Bilatu nahi d(it)uzun hitz muga(k) sartu eta klik egin 'Bilatu' botoian
 Bilaketa nola egin jakiteko, 'Laguntza' botoian egin klik

➤ **Bilaketa, trunkamendu bidez**

Trunkamendu bidez, hitz-zatiak aurkitu daitezke. Trunkamenduak bi eratakoak izan daitezke:

? (Galdera-marka) Bilaketa-terminoaren edozein tokitan jarrita, ? bakoitzak karakter bakar bat ordeztzen du. Horrela, bilaketaren patroia betetzen duten eta ? horren ordeztu edozein karaktere duten dokumentu guztiak aurkituko dituzu.

1. Aukeratu bilaketa egin nahi duzun eremua (egilea, izenburua eta abar).
2. Idatzi bilatu nahi duzun karaktere-katea, ordeztu nahi duzun karaktere bakoitzeko ? bat jarritz.
3. Klikatu **Bilatu**.

Egilea Etxeb?rria Aut.Aurk. Zehatza

Adibide honetan, bilaketak bai "Etxebarria" bai "Etxeberria" berreskuratuko lituzke.

*** (Izartxoa)** Bilaketa-terminoaren edozein tokitan jarrita, edo batean baino gehiagotan batera, karaktere-kate bat ordeztzen du. Horrela, bilaketaren patroia betetzen duten eta * horren ordeztu karaktere-kate bat duten dokumentu guztiak aurkituko dituzu.

1. Aukeratu bilaketa egin nahi duzun eremua.

2. Idatzi bilatu nahi duzun karaktere-katea, karaktereak ordeztu nahi dituzun tokian * bat jarritz.
3. Klikatu **Bilatu**.

Izenburua	hermanos karamazo*	Aurkibidea
Egilea	Dosto*	Aut.Aurk. Zehatza

1 2 3 4 5 »

<input type="checkbox"/> Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881) 5 Itzuli Brat'ja Karamazovy / Fiodor Dostoieskii (2008) Argitaratzailea: Moskva : Eksmo, 2009 Deskripzio fisikoa: 797 p. ; 21 cm	
<input type="checkbox"/> Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881) 6 Itzuli Crimen y castigo ; Los hermanos Karamazov / Fiodor Dostoyevski ; prólogo de José Domingo ; ilustraciones de Ramón Aguilar More (1969) Argitaratzailea: Barcelona : Mail Ibérica, D. L. 1969 Deskripzio fisikoa: 826 p. : il. ; 22 cm Egileak: Domingo, José (1982-AGILAR MORE, Ramón)	
<input type="checkbox"/> Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881) 6 Itzuli Crimen y castigo ; Los hermanos Karamazov / Fiodor Dostoyevski (2000) Argitaratzailea: [Madrid] : EDIMAT, [2000] Deskripzio fisikoa: 711 p. ; 24 cm ISBN: 84-8403-646-4	
<input type="checkbox"/> Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881) 4 Itzuli Los hermanos Karamazof ; El jugador / Feodor Dostoyevsky (1982) Argitaratzailea: [Bilbao] : Asuri, D.L. 1982 Deskripzio fisikoa: 2 v. ; 18 cm ISBN: 84-7113-075-0 (o. c.)	
<input type="checkbox"/> Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881) 4 Itzuli	

➤ **Bilaketa boolearrak**

Eragile boolearrak erabiltzeko aukera dago. Horien bidez, kontsultak hitz edo esaldi soil batekin baino zehatzago egin daitezke. Eragile boolearrak hitzak edo esaldiak konbinatzeko erabiltzen dira. Lau eragile bolear daude: Y, O, NO eta XOR (EXCLUSIVE OR).

Y Lotzen diren terminoak dokumentu berean daude. Erregistro berean hitz edo esaldi bat baino gehiago bilatzeko erabiltzen da. Eragilea erabil daiteke konbinatu nahi diren hitz edo esaldien artean Y hitza (komatxorik gabe) idatzita, edo zuriune edo ampersand (&) bat jarrita.

zuzenbide & zibila	Aurkitzen ditu bai zuzenbide eta zibila hitzak dituzten erregistro guztiak bai "zuzenbide penala" esaldia dutenak
Y	
"zuzenbide penala"	

O Dokumentuetan terminoetako bat dago, bestea edo biak. Hitz edo esaldi bat baino gehiago bilatzeko erabiltzen da, baina ez ezinbestean erregistro berean.

<p>zuzenbide</p> <p>O</p> <p>zibila</p>	<p>Aurkitzen ditu bi hitzetako bat edo bi hitzak, zuzenbide edo zibila eta penala, dituzten erregistro guztiak.</p>
<p>Zuzenbide O zibila</p> <p>Y</p> <p>penala</p>	<p>Aurkitzen ditu penala hitza eta beste bi hitzetako bat edo biak dituzten erregistro guztiak.</p>

NO Eragile honekin lotutako lehenengo terminoa dokumentuetan dago, baina bigarrena ez. Hitz edo esaldi jakin batzuk ez dituzten erregistroak bilatzeko erabiltzen da.

<p>Zuzenbide</p> <p>NO</p> <p>zibila</p>	<p>Aurkitzen ditu zuzenbide hitza duten baina aldi berean zibila hitza ez duten erregistro guztiak.</p>
<p>NO Internet</p>	<p>Aurkitzen ditu "Internet" hitza ez duten erregistro guztiak.</p>
	<p>Kontuan izan tankera honetako kontsultak egiten direnean, aurkitutako erregistroek ez dutela agertzen nabarmendutako testurik.</p>

XOR Zehaztutako terminoetako edozein dago dokumentuan, baina ez zehaztutako termino guztiak. Zenbait hitz edo esaldiren arteko bat, baina ez bi edo gehiago, duten erregistroak bilatzeko erabiltzen da.

Juan	Aurkitzen ditu Juan hitza edo Pedro hitza, baina ez biak, duten erregistro guztiak.
XOR	
Pedro	

Posizio-eragileak ere erabil daitezke. Posizio-eragileek (MISMO, CON, CERCA, ADJ) erregistro berean gertu dauden terminoak dituzten erregistroak aurkitzen dituzte. Posizio-eragileak erabil daitezke bilaketa-eremu baten barruan hitzak edo esaldiak lotzeko, baina ez bilaketa-eremuen artean.

MISMO Erregistro bibliografikoaren eremuak termino guztiak zehaztuta dituen erregistroak erabiltzen ditu. Bilaketa-termino guztiak **eremu beraren barruan** daude, baina ez ezinbestean esaldi berean.

Bizkaia	Aurkitzen ditu eremu beraren barruan bai Bizkaia bai historia dituzten erregistro guztiak.
MISMO	
historia	

CON Aurkitzen ditu eremu batean esaldi beraren barruan zehaztutako termino guztiak dituen erregistroak.

Bizkaia	Aurkitzen ditu esaldi beraren barruan bai Bizkaia bai historia dituzten erregistro guztiak.
CON	
historia	

CERCA Aurkitzen ditu eremu batek bilaketa-termino guztiak batera dituen erregistroak; alabaina, terminoen hurrenkerak ez du zertan bat etorri terminoak sartu diren hurrenkerarekin.

Bizkaia	Aurkitzen ditu eremu berean Bizkaia eta historia dituzten erregistro guztiak. "Bizkaia" edo "historia", bietako edozein, lehendabizi ager
CERCA	

historia	daitezke eremuan.
----------	-------------------

ADJ Aurkitzen ditu eremu batek bilaketa-termino guztiak batera eta horiek sartu diren hurrenkeran dituzten erregistroak.

Bizkaiko	Aurkitzen ditu Bizkaiko historia batera eta hurrenkera horretan duten erregistro guztiak.
ADJ	
historia	

Horrez gain, CERCA eta ADJ posizio-eragile batzuk gehitu daitezke hitzen arteko hurbiltasuna mugatu edo zabaltzeko. Adibidez, ""DE ADJ1 AQUI ADJ3 ETERNIDAD" " idatz liteke "De aquí a la eternidad" izenburua bilatzeko. ADJ3 eragileak esan nahi du hitzak aurki daitezkeela bilagarriak diren bi hitzen barruan, baina hitz horiek sartutako hurrenkeran egon behar dutela.

Eragile erlazionalak ere erabil daitezke. Eragile erlazionalak (<, >, =, <>, <=, >=) zenbakizko adierazpenak bilatzeko aukera ematen dute. Eragile erlazionalak erabiltzeko, eremu bat {} giltzen artean itxi eta sartu eragile erlazional bat eta zenbaki bat.

<	hau baino txikiagoa
>	hau baino handiagoa
=	honen berdina
<>	honekiko desberdina
<=	hau baino txikiagoa edo berdina
>=	hau baino handiagoa edo berdina

➤ **Kontsultak autoritateen alorrean**

Erregistro bibliografikoetan pertsona, erakunde korporatibo, izenburu edo gaiari loturik sarbide-puntu gisa erabiltzen den goiburuaren **forma normalizatua** da autoritate bat.

Bakuninen kasuan, forma normalizatua da **Bakunin, Mijail Aleksandrovich (1814-1876)**, eta ez, esaterako, Bakunin, Mikhail (1814- 1876). Hala, Bakuninen edo hari buruzko erregistro guztiak berreskura daitezke, dokumentuan agertzen den izenaren forma edozein delarik ere.


Eremu batzuetan (egilea eta gaiak) bilaketa autoritateen datu-basea kontsultatuz egin daiteke; hau da, pertsona, gaiak... ordeztzen dituzten erregistro bakarrak kontsultatuz.

Bilaketa hau egiteko:

1. Klikatu bilaketa egin nahi duzun eremua.
2. Idatzi aurkitu nahi dituzun terminoak.

Egilea Aut.Aurk. Zehatza

3. Klikatu **Aut.Aurk.** eta aurkitutako autoritateen zerrenda agertuko da.
4. Klikatu interesatzen zaizuna eta leiho bat zabalduko da autoritate horrek dituen dokumentuekin.

 ikurra klikatuta, autoritate hori automatikoki kopiatuko da jatorrizko bilaketa-eremuan, zure bilaketan beste eremuren bat begiratu nahi bazenu ere.

Bilaketa autoritateetan

Bilatzen "Dostoevskii" autoritatean "Egilea"

<input type="checkbox"/>		Idiot. Español < Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881). Idiot. Español
<input type="checkbox"/>		Idiot. Gaztelania < Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881). Idiot. Gaztelania
<input type="checkbox"/>		Igrok. Español < Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881). Igrok. Español
<input type="checkbox"/>		Igrok. Gaztelania < Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881). Igrok. Gaztelania
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881). Crimen y castigo--- Crítica e interpretación
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881). Pobres gentes
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881). El doble
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Crítica e interpretación = Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Kritika eta interpretazioa
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Correspondencia = Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Korrespondentzia
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Kritika eta interpretazioa = Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Crítica e interpretación
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Korrespondentzia = Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Correspondencia
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881). Biblioteca Dostoyevski (Alianza Editorial)
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Biografías = Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Biografiak
<input type="checkbox"/>		Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Biografiak = Dostoevskii, Fiodor Mijailovich (1821-1881)--- Biografías

Bilatzen "Dostoevskii" autoritatean "Egilea"

➤ **Kontsultak aurkibideen alorrean**

Eremu batzuetan bilaketak datu-baseen aurkibideak kontsultatuz egin daitezke (adib. bilduma, izenburua). Zerrenda horretan, bilatutakoaren aurreko eta ondoko terminoak azalduko dira alfabetikoki ordenaturik.

Bilaketa hau egiteko:

1. Klikatu bilaketa egin nahi duzun eremua.
2. Idatzi aurkitu nahi dituzun terminoak.






















Izenburua

▼

derecho de

Aurkibidea

3. Klikatu , eta jarritako terminoaren antzekoenak diren hitzen zerrenda agertuko da.
4. Klikatu interesatzen zaizuna eta leiho bat zabalduko da hitz hori duten dokumentuen zerrendarekin.

Bilatzen "derecho de" aurkibidean "Izenburua"		
	DERECHO CONSUECUDINARIO DE VIZCAYA MEMORIA QUE OBTUVO EL SEGUNDO	1
	DERECHO CONSUECUDINARIO DE VIZCAYA OBSERVACIONES AL PROYECTO DE	2
	DERECHO CONSUECUDINARIO EN VASCONGADAS Y NAVARRA APUNTES PARA UN	1
	DERECHO CONSUECUDINARIO Y ECONOMIA POPULAR DE ESPAÑA POR JOAQUIN	1
	DERECHO CONSUECUDINARIO Y ECONOMIA POPULAR DE LA PROVINCIA DE MU	1
	DERECHO CONSUECUDINARIO Y ECONOMIA POPULAR DE LA PROVINCIA DE SE	1
	DERECHO CONSUECUDINARIO Y ECONOMIA POPULAR DE MURCIA MARIANO RUI	1
	DERECHO CULTURA Y SOCIEDAD EN LA ANTIGUEDAD TARDIA ESPERANZA OSA	1
	DERECHO CULTURA Y SOCIEDAD TECNOS	1
	DERECHO CUMUNITARIO DEL TRABAJO FAUSTO POCAR TRADUCCION DE JOSE	1
	DERECHO DEBATE	2
	DERECHO DEL COMERCIO ELECTRONICO PRIMERAS JORNADAS CELEBRADAS EN	1
	DERECHO DEL COMERCIO GLOBAL PABLO ZAPATERO PROLOGO FERNANDO M MA	1
	DERECHO DEL CONSUMO NORMAS GENERALES COMERCIO INTERIOR. CONTRATA	1
	DERECHO DEL CONSUMO REUS	1
	DERECHO DEL DEPORTE EL NUEVO MARCO LEGAL JOSE LUIS CARRETERO LES	1
	DERECHO DEL DEPORTE LUIS MARIA CAZORLA PRIETO DIRECTOR ENRIQUE A	1
	DERECHO DEL MAR POR JOSE LUIS DE AZCARRAGA	2
	DERECHO DEL MEDIO AMBIENTE JOSE ESTEVE PARDO	1
	DERECHO DEL MERCADO DE VALORES SUJETOS MERCADOS Y OPERACIONES ED	1
	DERECHO DEL MERCADO MIREN JOSUNE REAL	1
Bilatzen "derecho de" aurkibidean "Izenburua"		






3.- Sortu zure bibliografia

1. Egin kontsulta bat katalogoan

2. Behin bilaketa egin eta gero, emaitzak ikusiko dituzu zerrendaturik, honakoa bezalako pantaila batean:

Guztiak markatu
Bilaketa markatu
Berriro bilatu
Berriro bilatu aurreratu

1 2 3 »

<input type="checkbox"/> Elorriaga, Unai (1973-) 2 Itzuli SPrako tranbia / Unai Elorriaga (2001) Argitalpena: 2. argit Argitaratzailea: Donostia : Elkarlanean, 2001 Deskripzio fisikoa: 153 or. ; 22 cm ISBN: 84-8331-732-X	
<input checked="" type="checkbox"/> Elorriaga, Unai (1973-) 2 Itzuli SPrako tranbia / Unai Elorriaga (2002) Argitalpena: 6. argit Argitaratzailea: Donostia : Elkar, 2002 Deskripzio fisikoa: 153 or. ; 22 cm ISBN: 84-8331-732-X	
<input checked="" type="checkbox"/> Elorriaga, Unai (1973-) 2 Itzuli SPrako tranbia / Unai Elorriaga (2002) Argitalpena: 5. argit Argitaratzailea: Donostia : Elkarlanean, 2002 Deskripzio fisikoa: 153 or. ; 25 cm ISBN: 84-8331-732-X	
<input type="checkbox"/> Elorriaga, Unai (1973-) 2 Itzuli SPrako tranbia / Unai Elorriaga (2002) Argitalpena: 7. argit Argitaratzailea: Donostia : Elkarlanean, 2002 Deskripzio fisikoa: 153 or. ; 22 cm ISBN: 84-8331-732-X	
<input type="checkbox"/> Elorriaga, Unai (1973-) 2 Itzuli SPrako tranbia / Unai Elorriaga (2003) Argitalpena: 12. argit Argitaratzailea: Donostia : Elkar, 2003 Deskripzio fisikoa: 153 or. ; 22 cm ISBN: 84-8331-732-X	

3. Zerrendako dokumenturik hautatu nahi izanez gero, helbide elektroniko batera edo fitxategi batera bidaltzeko edo pantailan ikusteko, klikatu markatu nahi duzun dokumentuaren edo dokumentuen ezkerrean dagoen () laukitxoak.

Bilaketan aurkitutako erregistro guztiak hautatu nahi badituzu, klikatu **Guztiak markatu**.

Markatutako dokumentuen zerrendan sartu nahi baduzu, klikatu goiko barrako **Markatuak**.



Lan-saioan zehar markatutako dokumentuak pantailan ikusteko:

1. **Bidali** eremuan, hautatu **Pantaila** aukera.
2. **Formatoa** eremuan, hautatu dokumentuak gordetzeko nahi dizun formatua: Bibliografia/Katalogo (OPAC) formatua.
3. Klikatu **Onartu**.

Markatutako dokumentuak fitxategira bidaltzeko:

1. **Bidali** eremuan, hautatu **Fitxategia** aukera.
2. **Formatua** eremuan, hautatu dokumentuak gordetzeko nahi dizun formatua: Bibliografia/Katalogo (OPAC) formatua.
3. Klikatu **Onartu**.

Markatutako dokumentuak posta elektronikora bidaltzeko:

1. **Bidali** eremuan, hautatu **Email** aukera.
2. **Formatoa** eremuan, hautatu dokumentuak gordetzeko nahi dizun formatua: Bibliografia/Katalogo (OPAC) formatua.
3. **Email** eremuan, idatzi dokumentuak bidali nahi dituzun helbide elektronikoa.
4. **Gaia** eremuan, idatzi mezu elektronikoa jaso nahi duzun deskribapena.
5. Klikatu **Onartu**.

Bidali
 Formatea

Email Gaia

Erregistroak 1/1 1

Elorriaga, Unai (1973-)
 SPrako tranbia / (2002)

Erregistroak 1/1 1